



**EBAZPENA, 2011KO EKAINAREN 9KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, INGURUNE BAZTERTUAN DAUDEN IKASTETXE PUBLIKOETAN, ETA/EDO ESKOLARI NEKEZ EGOKITZEN ZAIZKION IKASLEAK DITUZTENETAN LANPOSTUAK 2011-2012 IKASTURTEAN ZEHAR ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA BEHIN-BETIKO EBAZTEN DA.**

---

2011ko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak zenbait lanpostu 2011-2012 ikasturtean zehar zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia egin zuen. Lanpostu horiek haur-, lehen- eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakasle aritzeko dira, ingurune baztertuan dauden ikastetxe publiko batzuetan, eta/edo eskolari nekez egokitzen zaizkion ikasleak dituztenetan.

2011eko maiatzaren 25an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez behin-behineko ebazpena eman zitzaion deialdiari, eta hiru egun balioduneko epea ireki zen erreklamazioak egiteko.

Horiek horrela, honako hau

### **EBATZI DUT**

Argitaratzea Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan eta Saileko web orrialdean I. Eranskinean jaso den deialdiaren behin-betiko emaitza

### **ERREKURTSOAK**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 9a

**LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**

Juan Manuel Aramendi Arteaga